



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko martxoaren 21a

26. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko mugikortasun iraunkorrari eta garraioaren antolamenduari buruzko Foru Lege integralaren proiektua. Proiektua erretiratzea (17. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetzat hausten den kasuetarako arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Foru Legea, Gobernu Onaren Kodea ezartzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).
- Foru Legea, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (23. or.).
- Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 9. bis artikulua sortzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (25. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea behin-behinekoz aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (26. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Transferentzien Batzordea biltzeko deialdia presaz egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (27. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZari buruzko Legean Foru Komunitateko langileen atxikipenetan onetsitako deflazio progresiboa harmoniza dezan. Osoko Bilkurak onetsia (27. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena.**

### **OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduen 152. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako Foru Legea gehiago osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen Foru Legea**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Konstituzio Auzitegiaren Bigarren Salako 2009ko ekainaren 1eko epaiak, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak planteatutako konstituzionaltasun arazoak ebatzi zituenean, Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren zenbait zati Konstituzioaren kontraketat jo zituen. Xedapen horren bidez Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostu hutsak betetzeko ohiz kanpoko prozesua garatzeko baimena eman zen. Epai horren bidez, prozesu hartan modu murriztailean emandako gaikuntzak deuseztatu ziren eta gaitu berriei eskainitako plazak funtzionario arabidean betetzea ezinezko bihurtu zen.

Nafarroako toki administrazioetako idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak betetzeko gaur egun indarra duen sistema arrunta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen VII. tituluan jasota dago. Horko zenbait determinazio bateraezinak dira Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legean ezarritakoekin. Hori ikusita, beharrezkoa litzateke lege-araudi bat onestea, Nafarroako Toki Administrazioan beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzeko erreserbatutako lanpostuak bete eta bertan sartzeko sistemaren normalizazioa bermatzeko.

Araudi berria egiteko, lehenbizi, indarreko sistemaren gabezia eta mugak identifikatu behar izan dira, normalizazioa lortuko bada, sistema hori bideraezina eta eutsiezina delako. Gabezia horiek, besteak beste, hauek dira: langile gaituen arabide juridikorik ez dago, Nafarroako Toki Administrazioaren balizko berrantolaketa administratibo eta funtzionalarekin bateragarriak liratekeen atalase batzuk ezarri beharko lirateke, denbora-mugarrien zorrotasuna ezarritako prozeduraren zailtasunarekin bateraezina da eta, azkenik, toki entitateetako gehiegizko mendekotasuna dago hutsik dauden lanpostuak eta horiek betetzeko berariazko balorazio irizpideak finkatzeko orduan, eta hori bateraezina da lanpostuak betetzeko lehiaketa bateratuen egonkortasun eta segurtasunarekin.

Indarreko araudiaren eta lehen adierazitako gabezia horien arteko bateraezintasuna gainditu nahian, foru legeak behar horiei erantzuna eman nahi die, baina Nafarroako Toki Administrazioaren errealitate soziala alde batera utzi gabe, ez eta aurrekari administratibo eta judizialak ere, garbi utzi baitute beharrezkoa dela sistemari ahalik eta segurtasun juridikorik handiena ematea.

Problematika hau guztia konpondu nahi bada, zeina gero eta konplikatuagoa baita denborak aurrera egitearen, arreta administratiborako formu-

lak ugaritzearen eta entitate pribatuak toki kudeaketan parte hartzearen ondorioz, garatu egin beharko dira, nahitaez, lege-aurreikuspenak; bereziki, zerbitzu administratiboetarako batasunak sortzeko aurreikuspena. Eta hori egin beharko da diseinu-gako saihestezin batzuk oinarri hartuta:

– Interes bakarra izan behar du Nafarroako Toki Administrazioaren antolamendua eta funtzionamendua hobea izateak.

– Administrazio publikoen jardunbidea inspiratzen duten printzipio konstituzionalei jarraitu behar zaie, eta espezializatorako eta profesionalizatorako baldintzak egotea ziurtatu behar da, toki kudeaketako benetako lan-taldeen konfigurazioa abiapuntu.

– Ziurtatu behar da udal oro egonen dela beharrezkoak dituen baliabide pertsonalez eta materialer hornituta.

– Konponbideak abiapuntu izan behar du mapa funtzional bat, lurraldean kokatuta gauden modu konplexuari eta gure egitura administratibo konplexuari erantzunen diena, eta, udalei kontsultatu ondoren, egonkorra gertatuko dena.

– Epe bat ezarri behar da eredia nork bere borondatez ezar dezan, eta sustapen neurriak ere bai epe horretan inizatiba hartzen dutenentzat.

– Bideratu beharra dago toki entitateetako langileen eskari zilegiak, bai langile finkoenak bai bitartekoenak, nola baitira egonkortasuna, mugikortasuna eta gora egiteko aukera.

– Neurriak hartu beharra dago dauden problemak arintzeko, eta errazteko gaurko egoeratik etorkizuneko eredurako iragatea errazteko.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen VII. tituluaren egitura nabarmen aldatuz, artikuluetan finkatzen da, Nafarroako toki entitateen zerbitzuko langile guztien araudi generikoaz gainera, araudi berariazkoago eta berezituago bat, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako eginkizun publiko beharrezkoetan aritzeko erreserbatutako lanpostuei dagokiena. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lanpostu horietarako gaikuntza eman beharrak langile horien araubide juridikoaren eta lanpostu horiek betetzeko sistemaren eguneratzea dakar, hori guztia determinazio hauetan oinarritua:

– Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak, aurreko araudiaren arabera aldaketarik gabe sailkatuta daudenak, dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eman beharreko gaikuntza duten funtzionarioen-

tzat erreserbatuta dauden bakarrak, eta hori berresten da.

– Beharrezkoak diren eginkizun publikoak finkatzen dira, baita lanpostu bakoitzari dagozkionak ere, eta lehenbiziko aldiz, gaikuntza duten toki funtzionarioen berariazko araubide juridikoa eratzten da. Funtzionario horiek bateraezintasun araubidean arituko dira.

– Beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzeko erreserbatuta dauden lanpostuak noiz diren aginduzkoak eta noiz borondatezkoak finkatzen da eta lanpostu hutsak funtzionario araubidean betetzeko beharrezkoak diren atalase batzuk ezartzen, biztanle kopuruaren eta aurrekontuaren arabekoak, parlamentuaren erabakiaren bidez aldatzen ez diren bitartean.

– Toki Administrazioaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuari esleitzen zaio idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak funtzionario araubidean bete behar dituzten langileak hautatu eta izendatzeko ardurak, kasuan kasuko plantilla organikoan ezartzen diren determinazioen arabera.

– Idazkari eta kontu-hartzaile izaera behin betikoz hartzeko ezinbesteko baldintza izanen da, aurretik, gaikuntza lortzea txanda irekian, dela oposizio bidez, dela oposizio-lehiaketa bidez, lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizunaren arabera, baina gaikuntzen kopurua ezin izanen da izan aurretik egin beharreko lehiaketetan hutsik gelditzen diren lanpostuen kopurua baino handiagoa.

– Hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostu hutsak betetzeko, funtzionario gaituen arteko merezimendu lehiaketa bateratuak egiten segituko dira, lehenetsunezko hautapen sistemaren bidez, baremo bakarra aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, hizkuntza arloan indarra duen araudia aplikatuz. Merezimendu lehiaketa horiek egiteko gehieneko maiztasuna ere finkatzen da.

– Idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak betetzeko araubide berezi bakarra Iruñeko Udalarai aitortu zitzaiona dela berresten da eta araubide hori eguneratzen. Aitortza hori Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen hamaseigarren xedapen gehigarriaren bidez eman zitzaion.

– Toki entitateek idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuen ezaugarriari buruzko informazioa eman beharra ezartzen da, lanpostuetan sartu eta betetzeko deialdiak zuzen ebatzi ahal izateko.

Era berean, Nafarroako toki entitateetako agintaritzako eta diruzaintzako eginkizun publikoetan aritzeko arauak ematearekin batera, foru legeak

denbora luzamendu bat ezartzen du Nafarroako Gobernuak udal-batasunak ezar ditzan, erreserbatuta dauden idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak funtzionario araubidean betetzeko indarra duten atalaseak gainditzeko elkartu ez diren udalekin. Orobat, araubide iragankor bat ezartzen da arauzko aurreikuspen batzuetarako, lanpostu horiek betetzeko sistema berria normalizatzea baldintzatzen duten indarreko arauak indargabetzen dira eta Toki Administrazioan beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzearen gaineko aurreikuspenen erregelamenduzko garapena egiteko ahalmena esleitzen da.

Garrantzi berezia eman behar zaie foru lege honetako lehen xedapen gehigarriko nahiz xedapen iragankorretako aurreikuspenei. Horien bidez, izan ere, epe bat ezartzen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege proiektu bat igor dezan Nafarroako Parlamentura, non arautuko baitira Nafarroako Foru Mapa eta Nafarroako toki entitateen antolamendua; aldi berean, alde aurretik existitzen ziren egoera juridikoak arautu nahi dira, eta lanpostuak betetzeko sistema berriari beharrezko segurtasun juridikoa eman ere bai.

**Artikulu bakarra.**Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko VII. tituluak testu berria du. Hona:

#### «I. KAPITULUA Xedapen komunak

233. artikulua. Langile motak. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako toki entitateen zerbitzuko langile-ria funtzionario publikoek, behin-behineko langileek eta kontratupeko langileek (finkoek edo aldi baterakoek) osatzen dute.

2. Ez dute Nafarroako toki entitateetako langileen izaera izanzen Korporazioko kidea izateagatik eginkizun batzuk egitea edo zerbitzu batzuk ematea esleitu dutenek, ez eta horrelakoak errentamendu-harreman baten bidez egiten dituztenek ere.

3. Nafarroako toki entitateen zerbitzuko langileen araubidea, lege honetan aurreikusitakoa ez dagoen orotan, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan xedatutakoa izanzen da.

234. artikulua. Beharrezkoak diren eginkizun publikoen azalpena eta horietan aritzea.

1. Nafarroako toki entitate guztietan beharrezkoak diren eginkizun publikoak hauek dira:

a) Idazkaritza lanak, fede publikoa eta aginduzko lege-aholkularitza barne direla.

b) Kontu-hartzaitza lanak, barneko kontrol eta fiskalizazioa, ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen arloko aholkularitza eta kudeaketa eta, azkenik, kontabilitatea barne direla.

c) Diruzaintza lanak, funtsak erabili eta gordezea eta dirua biltzea barne direla.

Oro har, idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako eginkizun publikoetan aritzea Foru Komunitateko Administrazioak ematen duen gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta egonen da bakar-bakarrik. Diruzaintzako eta aginteko eginkizunak, berriz, foru lege honetan ezarritako determinazioen arabera gauzatzen ahalko dira.

Artikulu honetako aurreko idatz-zatietan ezarritako kasuetan izan ezik, ezinezkoa izanzen da idazkaritzako, kontu-hartzaitzako eta diruzaintzako eginkizun publikoetan aldi berean aritzea berariazko lanpostua duten toki entitate batean baino ghiagotan.

2. Aurreko zenbakian adierazitako eginkizun publikoak honako hauen ardurara izanzen dira:

a) Udaletan, berariazko lanpostua duten mankomunitateetan eta eginkizun horiek egiteko sortutako batasunetan, kasuan kasuko entitateko langileak.

b) Kontzejuetan, eginkizun horiek batzarreko edo kontzeju irekiko kideek eginen dituzte, organo horien gaikuntza badute. Langile gaitu horiek kartutik libreki kentzen ahalko dira.

c) Tradiziozko toki batasunetan, beren erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan xedatzen denari jarraikiz eginen dira.

d) Berariazko lanposturik ez duten mankomunitateetan, 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan aipatutako eginkizunak, toki entitate elkartuetako batean eginkizun horietan aritzen direnei esleitzen ahalko zaizkie, hala eskatuz gero, edo eskaerarik ez bada, nahitaez, txandaka. Horrelakoetan, mankomunitateak zehaztuko duen ordainsaria jasoko du, betiere eginkizuna hartzen duen langileak aitortua duen mailari dagokion hasierako soldataren ehuneko 10 gutxienez.

3. Aurrekoa gorabehera, titularra kanpoan, gaxorik edo lanpostua erreserbatzeko eskubidea ematen duen beste administrazio egoera batean badago, eta orobat, lanpostua behin betiko betetzeko arau-eragozpen bat badago, edo funtzionario batek betetzeko deitutako lanpostu hutsa aldi baterako bete behar bada, idazkaritzako eta kontu-

hartzaitzako eginkizun publikoetan honako hauek aritzen ahalko dira:

a) Entitateko plantillako langile finko bat, lanpostu horretan aritzeko behar den titulazioa badu eta entitateak horretarako gaikuntza halaberrez eman badio, edo deialdi baten bidez hautatutako pertsona bat, administrazio araubidean aldi baterako kontratatua.

b) Behar den foru gaikuntza duen funtzionario bat, beste toki entitate batean aritzen dena, behar bezala frogatzen bada ezinezkoa izan dela lanpostu horiek aldi baterako betetzea aurreko idatz-zatian aurreikusitako aukeren bidez, edo betetzeko tramitazioak iraun bitarte. Horretarako, lehenago, Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaio eta ukitutako toki entitateen baimena lortu beharko da.

#### 235. artikulua. Plantilla organikoak.

1. Toki entitate bakoitzak bere plantilla organikoan adierazi beharko ditu plazen eta lanpostuen ezaugarriak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea eta hura garatzeko araudia aplikatuz kontuan hartzen direnak barne. Langile horiek hartzeko prozedurak ezaugarri horietara egokituko dira.

2. Toki entitateetako plantilla organikoak urtero onetsi beharko dira, aurrekontua onestearekin batera. Onesteko eta hura indarra dagoen bitartean aldatzeko, aurrekontuetarako ezarritako trami-teak bete beharko dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere barne.

3. Elkarte-izaerako entitate bat edo hitzarmen bat egoteagatik, toki entitate batean baino gehiagotan aritzen diren langileak badaude, langile horiek plantilla organiko bakar batean agertuko dira, organikoki menpean dituen entitaterenean hain zuzen, eta horren aipamena egin beharko da lanean ari diren gainerako entitateetako plantilla organikoetan.

4. Toki entitateek plantillaren kopia bat igorriko diote Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, behin betiko onetsi eta hilabete bateko epean. Horrekin batera, lanpostuen zerrenda ere igorriko da, bakoitzean ari diren langileak aipatuz.

#### 236. artikulua. Langileen hautaketa

1. Toki entitate bakoitzari dagokio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza behar duten langileentzat erreserbatuta ez dauden lanpostuak beteko dituzten langileak hautatzea.

2. Nafarroako Gobernuaren barrenean Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departa-

mentuari dagokio idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak beteko dituzten langileak hautatu eta izendatzea. Hala ere, lanpostu horiek toki entitate bakoitzeko plantillakotzat hartuko dira.

3. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren eginkizunen artean toki entitateetako langileen prestakuntza egonen da. Hala ere, toki entitateek eta beren elkarteek erakunde horrekin hitzarmenak sinatzen ahalko dituzte, prestakuntza jarduerak elkarrekin egiteko.

#### 237. artikulua. Ordainsariak.

Toki entitateen zerbitzuko langileek, foru lege honetan ezarritako berezitasunekin, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako kontzeptuengatik finkatutako zenbatekoak jasoko dituzte ordainsari gisa ez besterik. Horiek entitate bakoitzeko plantilla organikoan aipatu eta zehaztuko dira.

Hortaz, ezin izanen dute inolako funtsen banaketan parte hartu, eta ezin izanen dute arau horietan aipatutakoez kanpo beste ordainsaririk jaso.

## II. KAPITULUA

Beharrezkoak diren eginkizun publikoen mugapena eta foru gaikuntza behar duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuena

### Lehenengo atala

Beharrezkoak diren eginkizun publikoak

238. artikulua. Beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzearen erantzukizuna.

1. Oro har, atal honetan zerrendatzen diren idazkaritzako, kontu-hartzaitzako eta diruzaintzako eginkizun publiko beharrezko bakoitzaren administrazio-erantzukizuna duenak lan horiek egiteaz arduratzen diren zerbitzuen zuzendaritza izanen du esleitua, deusetan galarazi gabe toki entitateko gobernu organoen eskudantziak, bakoitzak antolatzeko duen ahalmena erabiliz.

2. Toki entitateek behar beste neurri (antolamendukoak, pertsonalak eta materialak) hartuko dituzte beharrezkoak diren eginkizun publikoetan eta eginkizun osagarrietan aritzeko erreserbatuta dauden lanpostuetako titularrei bermatzeko beren eginbeharrak askatasun, objektibotasun eta inpartzialtasun osoz beteko dituztela.

239. artikulua. Fede publikoa emateko eginkizunaren barruan, lan hauek daude:

a) Osoko Bilkuraren, Gobernu Batzorde erabakitzailearen edo entitatea lotesten duten erabakiak hartzen dituen Korporazioko kide anitzeko beste

edozein organoren bileretako gai zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, alkateak edo Korporazioko buruak ezarritakoarekin bat, eta horri laguntzea deialdia egiten, eta kide anitzeko organoko kide guztiei garaiz jakinaraztea.

b) Deialdia egiten denetik, gai zerrendan sartzen diren espedienteetako dokumentazio osoa zaintzea eta kide anitzeko organoko kideen eskura izatea, aztertu nahi badute.

c) Artikulu honetako a) letran aipatutako kide anitzeko organoen bilkuren akta egitea eta, bilkura bakoitza hasi aurretik, aurrekoaren akta onesteko bidean jartzea. Akta onetsi ondoren, akten liburu baimenduan transkribatuko da, idazkariak sinatu eta alkateak edo Korporazioko buruak ontzat eman ondoren.

d) Lehendakaritzako ebazpenen liburuan transkribatzea lehendakariak eta Korporazioko kideek, hark eskuordeturik, ematen dituzten ebazpenak.

e) Lehendakaritzaren egintza edo ebazpen guztiak ziurtatzea eta, orobat, erabakitzeke ahalmena duten kide anitzeko organoen erabakiak, hala nola entitatearen aurrekari, liburu eta dokumentuak.

f) Estatuko Administrazioa eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa igortzea, erregelamenduz ezartzen den moduan eta epeetan, Korporazioko pertsona bakarreko edo kide anitzeko organo erabakitzaileen egintzen eta erabakien kopia edo, hala badagokio, laburpena.

g) Espedienteetan, idatzohar bidez jasotzea, sinadura jarrita, hartzen diren ebazpenak eta erabakiak.

h) Entitateak parte hartzen duen lizitazio, kontratu eta antzeko agiri administratibo guztien aktak baimentzea, atxikita dituen berme eta erantzukizunekin.

i) Aginduzkoak diren iragarkiak publizitate-bide ofizialetan eta entitatearen iragarki oholean argitara daitezela xedatzea eta horren emaitza ziurtatzea, behar izanez gero.

j) Korporazioko kideen Interesen Erregistroaz eta Entitatearen Ondasunen Inbentarioaz ardurtzea eta haiek zaintzea.

k) Entitatearen artxibo eta erregistroen goi zuzendaritza.

239. artikulua (bis). Aginduzko lege aholkularitzako eginkizunaren barruan, lan hauek daude:

a) Aurretiko txostenak prestatzea, Korporazioko buruak aginduz gero edo zinegotzien heren batek eskatuz gero kasuan kasuko gaia jorratuko den bil-

kura egin baino zortzi egun lehenago. Txosten horietan kasu bakoitzean aplikatzekoa den legedia adierazi beharko da eta proiektu fasean dauden erabakiak legearen araberrakoak ote diren.

b) Aurretiko txostena prestatzea, onesteko gehiengo berezi bat eskatzen duen gai bat jorratzen den bakoitzean. Horrelakoetan, zerbitzuko edo bulegoko beste buruek edo beste aholkulari juridiko batzuek txostena egin badute, aski izanen da harekiko adostasuna edo desadostasuna adierazteko oharra egitea. Kasu horretan, oharraren sinatzaileak txostenaren erantzukizuna hartuko du bere gain.

c) Aurretiko txostenak egitea, berriazko lege agindu batek hala eskatzen badu.

d) Parte hartzen duen kide anitzeko organoetako bilkuretan eta organoko buruaren berriazko errekerimendua dagoen guztietan, eztabaidatzen den gaiaren gaineko legezko alderdiei buruzko txostena egitea, hartu beharreko erabakiaren zuzentasun juridikoa helburu. Eztabaidan, gairen baten legezotasunaren gainean zalantzarik sortzen baldin bada, hitz egiteko baimena eskatzen ahalko dio buruari Korporazioari aholku emateko.

e) Korporazioko buruari edo kideei eskriturak sinatzeko ekitaldietan laguntzea eta, hala eskatuz gero, baita agintariei egiten dizkieten bisitetan edo bileretan ere, lege arloko aholkularitza emateko.

f) Korporazioko buruari aurrekontua prestatzen laguntzea, kontu-hartzailearekin batera.

g) Toki entitatearen zerbitzu juridikoak koordinatzea.

h) Udalerrian dauden kontzejuetako buruek eskatzen dizkieten aholkularitza eta laguntza lanak.

240. artikulua. Barneko fiskalizazioko eta kontroleko eginkizunak lan hauek hartzen ditu eginkizun bakoitzerako: kontu-hartzailetzan, finantza kontrolean eta eraginkortasunaren kontrolean:

1. Kontu-hartzailetzako eginkizunaren helburuak hauek dira:

a) Toki entitatearen eta haren erakunde autonomoen egintza guztiak fiskalizatzea, eskubide eta betebeharren aitorpena eta likidazioa edo gastu ekonomikoak badakartzate, baita haietatik datozen kobrantzak eta ordainketak ere, eta, orobat, administratutako diru publiko guztien aplikazioa, inbertsioa eta diru-bilketa egitea, oro har, kudeaketa kasuan-kasuan aplikatu beharreko xedapenetara egokitu dadin. Eginkizun horren barrenean, lan hauek daude:

– Eskubide edo betebeharrak ekonomikoak eta funtsen edo baloreen mugimenduak sor ditzaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartzailtza kritikoa edo aurretikoa egitea.

– Ordainketa aginduen kontu-hartzailtza formala.

– Ordainketaren kontu-hartzailtza materiala.

– Inbertsioen eta diru-laguntzen aplikazioaren kontu-hartzailtza eta egiaztapen materiala.

b) Egindako ohartarazpenen kontra toki entitateko buruak hartutako ebazpen guztien gaineko txostena egitea eta Osoko Bilkurari igortzea, hala nola diru-sarreraren arloan atzemandako anomalia nagusien laburpen bat.

c) Kreditu aski izan gabe, baimentzen diren gastuak edo aitortu, likidatu edo ordaintzen diren betebeharrak bidegabeak direla ohartaraztea idatziz, bestela haien gaineko erantzukizun pertsonala izanen du eta.

d) 50.000 biztanletik gorako udalerrietan, aurretiko txostena egitea, alkate-udalburuak proposaturik, entitateak erabaki dezan aurretiko kontu-hartzailtza lana alderdi hauek egiaztatzerako muga dadila:

– Aurrekontuetan kreditu aski ote dagoen eta proposatzen den kreditua egin edo hartu nahi den gastu edo betebeharrerako egokia den, eta urte anitzeko gastu konpromisoak hartuz gero, agindutakoa betetzen den.

– Betebeharrak edo gastuak organo eskudun batek proposatzen ote dituen.

– Kudeaketa prozesuan duten eragina dela eta, Osoko Bilkurari zehazten dituen beste alderdi batzuk.

Kontu-hartzailtza organoak egoki iruditzen zaizkion ohar osagarriak egiten ahalko ditu, baina horiek ez dute inola ere etengo kasuko espedienteen tramitazioa.

e) Obrak hartzeko ekitaldietara joatea entitateko buruarekin edo hark eskuordetutako kidearekin, entitateko idazkariarekin, obra zuzendaritzaren arduradunarekin eta kontratistarekin batera. Azken horrek, hala nahi izanez gero, bere fakultatiboa eraman dezake.

2. Finantza kontrolako eginkizunaren helburuak hauek dira:

a) Toki entitateetako zerbitzuen, haien erakunde autonomoen eta haien menpeko merkataritza sozietateen alderdi ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendua egiaztatzea.

b) Epaitzea ea finantza arloko informazioaren aurkezpena egokia ote den, betetzen ote diren aplikatzekoak diren arau eta jarraibideak, eta zenbaterako den aurreikusitako helburuen efizientzia maila.

c) Egindako azterketaren ondorioz ateratzen diren ohar eta helburu guztiak azaltzen dituen txosten idatzia egitea. Txostenak, auditoriaren xede izan den organoaren alegazioekin batera, Osoko Bilkurari bidaliko zaizkio, azter ditzan.

3. Eraginkortasuna kontrolatzeko eginkizunaren helburua da, aldi behin, helburuak noraino bete diren egiaztatzea, hala nola zerbitzuen edo inbertsioen errendimenduen eta funtzionamenduen kostuen azterketa egitea.

240. artikulua (bis). Ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen arloko kudeaketa eta aholkularitzako eginkizunaren barruan lan hauek daude:

a) Toki entitateko buruari aurrekontua prestatzen laguntzea, idazkariarekin batera.

b) Ekonomia eta finantza txosten bat prestatzea, entitatearen aurrekontuari buruzko informazio osagarria izanen dena. Txosten horretan honako hauek azalduko dira: batetik, aurreikusitako diru-sarreraren eta kreditu-eragiketen ebaluazioa egiteko erabilitako oinarriak, eta, bestetik, kredituak aski ote diren eskatzen zaizkion betebeharrei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko eta, horrenbestez, aurrekontua benetan berdintzeko. Kreditu eragiketei dagokienez, haien zenbaterakoaz gainera, hitzartu asmo diren ezaugarri eta baldintza finantzario guztien xehetasunak adieraziko dira, eta bereziki aipatuko da entitateak duen finantza karga, hura formalizatu aurretik eta ondotik.

c) Idazkariarekin batera, aurrekontu orokorren proiektuari buruzko aurretiko laburpen txostena prestatzea, entitateko buruak Korporazioaren Osoko Bilkurari azaroaren lehena baino lehen bidaltzeko, horrek onetsi, zuzendu edo itzul dezan.

d) Exekuzio oinarrien aurretiko txostena prestatzea, gastuen aurrekontuen kargura egiten diren kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketa aginduak emateko arauari buruz. Bertan zehaztuko dira irizpide orokorrak, muga kuantitatiboak eta zein aurrekontu-kontzepturi aplikatu behar zaizkien.

e) Aurrekontuetako kredituen aldaketa guztiei buruzko txostena egitea, nahitaez.

f) Mota guztietako kreditu-eragiketak hitzartze-ko aurretiko txostena prestatzea, non toki entitateak eragiketa horien ondoriozko betebeharrei den-

boran aurre egiteko duen gaitasuna aztertuko baita bereziki. Toki entitatearen menpeko erakunde autonomoek kreditu-eragiketak hitzartu aurretik ere, txostena prestatu beharko da.

g) Aurreragoko ekitaldiei egotzi beharreko gastuak baimendu aurretik txostena prestatzea, baimendu beharreko urte anitzeko gastuaren ondorio ekonomiko-finantzarioei buruz eta, hala badagokio, gastu horien eta inbertsio planen eta finantzaketaren programen arteko korrelazioari buruz.

h) Toki entitatearen eta haren menpeko erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa toki entitateko buruak onetsi aurretik, aginduzko txostena prestatzea.

i) Gastuen murrizketa ezeztatu aurretik txostena prestatzea, aurrekontua likidatzean diruzaintzako geldikin negatiboa baldin badago.

j) Toki entitateko buruak edo zinegotzien heren batek eskaturik, edo legez gehiengo berezi bat behar duten gaiak jorratu behar direnetan, ekonomiaren, finantzen edo aurrekontuen gaineko txostenak, irizpenak eta proposamenak egitea.

k) Irizpena ematea zerbitzu berriak sortzeari edo daudenak berritzeari buruz, aurkezten diren proposamenen ondorio ekonomiko-finantzarioak ebaluatzeko. Eztabaidan gairen baten aurrekontu-ondorioen gainean zalantzarik sortzen baldin bada, hitz egiteko baimena eskatzen ahalko dio entitateko buruari, Korporazioari aholku emateko.

l) Aurretiko txostena prestatzea, herri ekimen baten bidez, udalaren eskumenekoak diren gaietarako erabaki edo jarduketaren proposamenak edo xedapen orokorren proiektuak aurkezten direnean, eskubide edo betebeharrak ekonomikoetan ondorioz badute.

240. artikulua (ter). Kontabilitateko eginkizunak lan hauek hartzen ditu:

a) Aurrekontuaren exekuzioaren segimendua eta kontabilitatea eraman eta garatzea, arau orokorrei eta Korporazioko Osoko Bilkurak ematen dituen arauetara jarraituz.

b) Toki entitatearen menpeko erakunde autonomoen eta merkataritza-sozietateen kontabilitatea kontrolatu eta gainbegiratzea, Osoko Bilkurak ezartzen dituen prozedurekin bat.

c) Toki entitateko Osoko Bilkurari, entitateko buruaren bidez, aurrekontuen betearazpenaren gaineko informazioa igortzea, baita Osoko Bilkurak kontabilitatearen gainean eskatzen duen gainerako informazioa ere, hark eskatzen dituen epeak eta maiztasuna betez.

d) Kontu orokorrak egin edo prestatzea.

241. artikulua. Diruzaintzako eginkizunak.

1. Diruzaintzako eginkizunen barrenean dago toki entitatearen funts, balore eta efektuak erabili eta zaintzea, indarreko legezko xedapenek eta dirubilketa zerbitzuko buruek ezartzen dutenari jarraituz.

2. Funts, balore eta efektuak erabili eta zaintzeko berarekin dakar:

a) Entitatearen funts eta baloreei dagozkien kobrantzak eta ordainketak egitea, indarreko lege xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

b) Funtsak, baloreak eta efektuak nola zaindu behar diren antolatzea, entitateko buruak ematen dituen jarraibideekin bat.

c) Korporazioak ematen dituen jarraibideekin bat, bankuetan, Gordailu Kutxa Orokorrean eta antzeko establezimenduetan kontsignazioak egitea eta establezimendu horietan irekitako kontuen kontra igortzen diren txeki eta gainerako ordainketa aginduak baimentzea, ordainketen agintzailearekin eta kontu-hartzailearekin batera.

d) Diruzaintzako plan eta programak prestatzea, entitatearen diru-baliabideak denboran banatuz, bere betebeharrak egoki betetzeko, legez ezarritako lehentasunei erantzunez, Korporazioak ezartzen dituen jarraibideekin bat.

3. Dirubilketa zerbitzuko burutzak lan hauek hartzen ditu:

a) Dirubilketa prozedurak sustatu eta zuzentzea, eta kobrantzak ezarrita dauden epeetan egiteko beharrezkoak diren neurriak proposatzea.

b) Dirubiltzaileei eta derrigorrezko dirubilketako agenteei ematen zaizkien baloreen kargu-orriak baimentzea.

c) Premiamenduko administrazio espedientetan premiamendu probidentzia diktatzea eta bahitutako ondasunen enkantea egiteko baimena ematea.

d) Baloreen galeraren ondoriozko erantzukizunaren espedienteak tramitatzea.

Bigarren atala

Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak

242. artikulua. Erreserbatutako lanpostuak.

Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta dauden lanpostuak dira idazkaritzako eta kontu-hartzaileentzako eginkizunen administrazio-erantzukizuna esleitua dutenak, foru lege



honetan finkatzen den moduan eta baldintzetan. Eginkizun horiek foru lege honen 234. artikuluko 1. puntuko a) eta b) idatz-zatietan ezarrita daude.

Lehenengo azpiatala  
Idazkari lanpostua

243. artikulua. Idazkari lanpostua.

1. Idazkari lanpostuak esleituta izanen ditu fede publikoa ematearen administrazio-erantzukizuna eta aginduzko lege aholkularitzakoa; erantzukizunok foru lege honetako 239. eta 239. (bis) artikuluetan daude adierazita.

Idazkari lanpostuaren eginkizun izanen dira, era berean, kontu-hartzailetzako eginkizunak, 244. artikuluan ezarritakoaren arabera kontu-hartzailearen lanposturik ez duten toki entitateetan, eta, orobat, toki entitate horren bulego eta zerbitzuak antolatu eta zuzentzeko eginkizunak, kudeaketalanak egiten dituen A mailako beste pertsona bati esleituta ez daudenean.

2. Honakoetan izanen da idazkari lanpostua:

a) 2.000 biztanletik gorako udalerrietan.

b) Tradiziozko batasunetan, baldin eta hala badago xedatuta beren erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan.

c) Zerbitzu administratiboetarako batasunetan eta gainerako toki entitateetan, baldin eta hala ezartzen bada foru lege honetako lehen xedapen gehigarriak aipatzen duen foru legean, eta bertan ezartzen diren eskakizun eta baldintzekin bat.

3. Idazkariordearen lanpostua 25.000 biztanletik gorako udalerrietan bakarrik sortzen ahalko da, eta idazkarien lanpostuentzat ezarritako arauetara lotuko zaie.

Bigarren azpiatala  
Kontu-hartzaile lanpostua

244. artikulua. Kontu-hartzaile lanpostua.

1. Kontu-hartzaile lanpostuak foru lege honen 240., 240. (bis) eta 240. (ter) artikuluetan adierazitako eginkizunen administrazio-erantzukizuna izanen du esleitua.

Kontu-hartzaile lanpostuari berez dagozkion eginkizunetaz gain, diruzaintza lanak ere egin beharko ditu, diruzainaren lanposturik ez duten entitateetan.

2. Kontu-hartzailearen lanpostua honako entitate hauetan izanen da nahitaezkoa:

a) 3.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietan.

b) Tradiziozko batasunetan, hala badago xedatuta beren erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan, eta, betiere, azken bost urteetan urteko gastu arrunta hiru milioi eurotik gorakoa izan bada.

c) Zerbitzu administratiboetarako batasunetan eta gainerako toki entitateetan, baldin eta hala ezartzen bada foru lege honetako lehen xedapen gehigarriak aipatzen duen foru legean, eta bertan ezartzen diren eskakizun eta baldintzekin bat.

244. artikulua (bis). Kontu-hartzaileen lanpostu- en sailkapena.

1.- Kontu-hartzaileen lanpostuak honela sailkatzen dira:

a) A taldeko kontu-hartzailea, 7.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.

b) B taldeko kontu-hartzailea, foru lege honetako 244.2 a) artikulua aipatzen dituen gainontzeko udalerrietan.

2. Gainontzeko toki entitateetan kontu-hartzaileen lanpostuak sailkatuko dira foru lege honetako lehen xedapen gehigarriari aipaturiko foru legean ezarritakoaren arabera.

3. Dena dela, biztanle kopuruaren bilakaeraren arabera edo toki entitateak beste edozein zirkuntziantziarengatik hala erabakitzen duelako, entitateari duena baino maila altuagoko kontu-hartzaile bat baldin badagokio, lanpostu hori salbuetsita egonen da gerora etorritako sailkapenaren araberrako gaikuntza duten langileekin bete beharretik, betiere sailkapen baxuagoa izanik lan horiek egiten dituen funtzionarioaren egoera pertsonalak irauten arte. Horrelakoetan, funtzionarioak eginkizun horietan segitzen ahalko du, baina daukan mailatik goragoko gaikuntzarik eskuratu gabe.

Hirugarren atala  
Hautapena eta lanpostuak betetzea

Lehenengo azpiatala  
Gaikuntza lortzea

245. artikulua. Gaikuntza lortzeko deialdiak.

1. Nafarroako toki entitateetako idazkariaren edo kontu-hartzailearen izaera eskuratzeko, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen duen gaikuntza lortzea. Aurretik salbuetsita dago foru lege honetan Iruñeko Udalarentzat ezarrita dagoena.

2. Gaikuntza lortzeko aurretiko betebeharra izanen da oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez egiten den deialdia gainditzea, txanda irekian.

3. Deialdien oinarriak, programak eta merezimenduen baremoak Nafarroako Gobernuan Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak onetsiko ditu, Toki Administrazioaren ordezkarien parte-hartzearekin, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregelamenduan ezarritako determinazioekin bat.

4. Gaikuntza lortzeko deialdietan, berariaz antolatuko diren prestakuntza ikastaroak gainditzea eska daiteke.

5. Deialdi bakoitzean eman beharreko gaikuntzen zenbatekoa ez da izanen lanpostuak betetzeko aurretiko lehiaketak ebatzi ondoren hutsik gelditzen diren lanpostuen kopurua baino handiagoa.

246. artikulua. Epaimahaiak.

Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak hautapen probak kalifikatzeaz eta, hala behar bada, baremoak aplikatzeaz eta prestakuntza ikastaroak ebaluatzeaz arduratuko diren epaimahaiak izendatuko ditu. Epaimahaietan Nafarroako toki entitateen ordezkariak izanen dira, deialdietan ezartzen denaren arabera.

246. artikulua (bis). Gaikuntza probetan parte hartzeko betebeharrak.

1. Parte hartu nahi izanez gero Nafarroako toki entitateetako idazkari lanpostuetan sartzeko eta gaikuntza lortzeko probetan, kasuan kasuko deialdian eskabideak aurkezteko finkatzen den epea bukatzen den egunean ondorengo ikasketa tituluren bat eskuratu dela frogatu beharko da, edota ikasketa horietakoren bati dagokion gradu-titulua edo titulu baliokide bat:

– Zuzenbideko lizentzia.

– Zientzia Politikoetako eta Administrazioaren Zientzietako lizentzia edo Soziologiako lizentzia edo Zientzia Politikoetako eta Soziologiako lizentzia.

2. Parte hartu nahi izanez gero Nafarroako toki entitateetako A taldeko kontu-hartzaileen lanpostuetan sartzeko eta gaikuntza lortzeko probetan, kasuan kasuko deialdian eskabideak aurkezteko finkatzen den epea bukatzen den egunean ondorengo ikasketa tituluren bat eskuratu dela frogatu beharko da, edota ikasketa horietakoren bati dagokion gradu-titulua edo titulu baliokide bat:

– Zuzenbideko lizentzia.

– Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentzia.

– Ekonomiako lizentzia.

– Zientzia Aktuarial eta Finantzarioetako lizentzia edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentzia.

3. Parte hartu nahi izanez gero Nafarroako toki entitateetako B taldeko kontu-hartzaileen lanpostuetan sartzeko eta gaikuntza lortzeko probetan, kasuan kasuko deialdian eskabideak aurkezteko finkatzen den epea bukatzen den egunean aurreko idatz-zatian aipatutako ikasketa tituluren bat eskuratu dela frogatu beharko da, edota ikasketa horietakoren bati dagokion gradu-titulua edo titulu baliokide bat:

246. artikulua (ter). Izendapena, lanpostuen esleipena eta jabetza hartzea.

1. Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak, merezimenduen lehiaketen deialdietan betetzen ez direnak, 245. artikuluan aipatzen den gaikuntza lortzen dutenei esleituko zaizkie, betiere Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuko titularrak aurretik izendatu ondoren, izangaiek lortutako puntuazioaren arabera eta lanpostu hutsen hizkuntza eskakizunaren arabera, eta foru lege honen 250. artikulua 2. puntuan ezarritako irizpideei jarraikiz. Esleitzen diren lanpostuen jabetza hartzeko araubidea foru lege honen 252. artikuluan ezarritakoari egokituko zaio.

2. Nafarroako toki entitate batean idazkari edo kontu-hartzaile lanpostu bat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak deitutako hautapen prozesu baten bidez lortzen dutenek, bertan sartzeko euskaraz jakitea nahitaezkoa bazen, gero batean Nafarroako beste toki entitate batzuetako lanpostu hutsak betetzeko prozesuetan parte hartu nahi izanez gero, euskaraz jakitea nahitaezkoa duten lanpostuak betetzeko prozesuetan baidik ezin izanen dute parte hartu.

Aurreikuspen hori ez da aplikatuko baldin eta, euskararen ezagutza kontuan hartu gabe, erreferentziako hautapen prozeduraren emaitzak bide eman bazion interesdunari betebeharrak hori ezarrita ez duen lanpostu bat lortzeko.

3. Gaikuntza prozesuetako probak gainditu arren, deialdiaren xedeko lanpostu hutsak betetzeko izendatuak ez diren izangaiek Toki Administrazio-ko Departamentuak izendatzen ahalko ditu hari eskatzen dioten toki entitateek administrazio araubidean kontrata ditzan, hala eskatzen duten toki entitateetan lanpostu horiei dagozkien eginkizunetan aldi baterako aritzeko.

Horren ondorioetarako, hautapen prozesu horietan lortzen duten guztirako puntuazioaren arabe-

rako lehentasunezko ordena korrelatiboari segituko zaio.

#### Bigarren azpiatala Lanpostuak betetzea

247. artikulua. Lanpostuak betetzeko sistema, lanpostu hutsak zehaztea.

1. Gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak, oro har, merezimendu lehiaketa bidez beteko dira, salbu eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen hamaseigarren xedapen gehigarrian Iruñeko Udalarentzat ezarritako kasuetan. Lehiaketaren deialdia egitea Nafarroako Gobernuan Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio. Lehiaketa horien deialdia hiru urtean behin eginen da, gutxienez.

2. Lehiaketa horien xedea izanen da betetzea, hutsik badaude, foru lege honetako 243.2 eta 244.2 artikuluetan ageri diren lanpostuak; lanpostuon deialdia hiru urtean behin eginen da gutxienez, eta foru lege honetako 245. artikulua aipatzen duen gaikuntza lortzeko deialdia onetsi baino lehen eginen da.

3. Deitzen den lehiaketa bakoitzean, betetzeko eskainiko dira, halaber, beren titularrak lehiaketa horretan beste lanpostu bat lortzeagatik hutsik gelditzen diren lanpostuak, aurretik azaldu diren baldintzak betetzen badira betiere. Lehiaketen oinarrietan aurreikusita egonen da hurrenez hurreneko itzuliak egiteko prozedura, halako moduz non modua egonen baita esleitzeko, izangaien merezimenduak eta hurrenkera kontuan hartuta, bai hasieran deitutako lanpostu hutsak, bai titularrak lehiaketan parte hartzearen ondorioz hutsik gelditutako lanpostuak.

248. artikulua. Lanpostuak betetzeko deialdien aurreko prozedura.

1. Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak, gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko lehiaketen deialdia egin baino hiru hilabete lehenago gutxienez, jarduketa hauek eginen ditu:

a) Toki entitateei adieraziko die zeintzuk diren, foru lege honen 243.2 eta 244.2 artikuluetan sartuta egonik, hutsik dauden edo hutsik egon daitezkeen idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuak.

b) Idazkari edo kontu-hartzaile lanposturik bakoitzean den adierazteko eskatuko die lanpostu horiek sortzeko ahalmena duten toki entitateei, ahalmen hori eskuratuta dutelarik, hain zuzen ere, foru lege honen lehen xedapen gehigarriak aipagai duen foru legeak ezartzen duenarekin bat.

c) Tradiziozko toki batasunei eta Iruñeko Udalari galdetuko die zer erabaki duten beren idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuak sistema arruntarekin bete beharrekoen artean sartzeari buruz.

d) a) Idatz-zatian aipaturiko toki entitate guztietatik informazioa bilduko du jakiteko zer lanpostu dauden erreserbatuta, aplikatzekoa den araudia- ren arabera, minusbalioa dutenentzako txandakoentzat.

e) Eremu mistoko eta eremu euskalduneko toki entitateei informazioa eskatuko die funtzionario- araubidean bete daitezkeen lanpostuen hizkuntza eskakizunari buruz.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako jarduketak bukatu eta bi hilabeteko epean, toki entitateek departamentu horretara joko dute, lan hauetarako:

a) Adierazteko idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuak sortu nahi dituztela, foru lege honetako lehen xedapen gehigarrian aipaturiko foru legean ezarritakoari jarraikiz horretarako ahalmena dutenean. Betebehar hori ez betetzea ez da oztopo izanen lanpostu horiek lehiaketetan ofizioz sartzeko.

b) Jakinarazteko bete beharreko zer lanpostu dauden erreserbatuta minusbaliatuentzako txandakoentzat, halakorik baldin badago.

c) Eremu mistoko eta eremu euskalduneko idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuen hizkuntza eskakizuna zehazteko. Ezarritako epean jakinarazten ez badute, ondorioztatuko da euskaraz jakitea ez dela nahitaezkoa, eta merezimendu gisa eremu euskalduneko bakarrik baloratuko da. Elkarre- izarako toki entitateetan zer hizkuntza eskakizun aplikatuko den jakiteko, entitatearen egoitza non dagoen hartuko da kontuan.

3. Aurreko puntuan ezarritako epea bukatuta eta toki entitateen informazioa aztertuta, Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak, lehiaketen deialdia egin baino lehen, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du 247. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan ezarritakoari jarraikiz funtzionario araubidean bete daitezkeen idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuen zerranda eta, behar bada, honakoak zehaztuko ditu: minusbaliatuentzako txandan betetzeko erreserbak eta lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizuna.

249. artikulua. Lehiaketetan parte hartzea.

1. Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta dauden lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketetan parte hartzen ahalko dute ondotik aipatzen diren administrazio egoeretako batean dauden toki funtzionario gaituek, betiere

lortu nahi duten lanpostua beren karguari eta taldeari dagokiena baldin bada. Alegia:

- Jardunean.
- Zerbitzu bereziak.
- Borondatezko eszedentzia, egoera horretara igaro zenetik urtebete gutxienez igaro bada.
- Eszedentzia berezia.

2. Epaia edo administrazio ebazpen irmo baten bidez desgaituak edo eginkizun-gabetuak dauden funtzionarioek ezin izanen dute parte hartu lehiaketetan, epaian edo zehatzeko ebazpenean adierazitako epea igaro ez bada.

3. Nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioak lehiaketetan parte hartu eta lanpostu huts guztiak eskatzera beharturik daude.

4. Parte-hartzaileek lanpostuak aukeratzeko prozedura deialdietan ezartzen dena izanen da.

250. artikulua. Merezimenduak.

1. Nahitaez baloratu beharreko merezimenduen baremoa zehaztea Nafarroako Gobernuan Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio, Nafarroako toki entitateen ordezkarien parte-hartzearekin. Baremoa Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamenduan lekualdatze lehiaketetarako ezarritako aurreikuspenetara egokituko da.

2. Eremu euskalduneko toki entitateetan, euskaraz jakitea nahitaezkatzat jotzen ez bada, merezimendu kualifikatutzat hartuko da, eta haren balorazio osagarria merezimenduen baremoaren guztirako puntuazioaren ehuneko 10ekoa izanen da.

Eremu mistoko toki entitateetan, euskaraz jakitea nahitaezkatzat jotzen ez bada, eta merezimendu kualifikatutzat hartzea erabaki badute, haren balorazio osagarria merezimenduen baremoaren guztirako puntuazioaren ehuneko 6koa izanen da.

Euskaraz jakitearen egiaztapena eta kasu bakoitzean balorazioa egiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako langileentzat hizkuntza horren ezagutzaren tratamenduari gainean ezarritako araudiari segituko zaio.

251. artikulua. Epaimahaiak.

1. Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketak ebazteko ardura duten epaimahaietan toki entitateen ordezkariak parte hartuko dute. Epaimahai horietako kideak Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak izendatuko ditu.

2. Deialdi bakoitzaren aurreikuspenekin bat, epaimahaiak parte-hartzaileek frogatutako merezimenduak baloratuko dituzte eta horien zerrenda ordenatu bat prestatuko dute, bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera. Zerrendan euskaraz jakitea nahitaezkoa duten lanpostuetan sartu nahi duten lehiakideak azalduko dira, eta kontuan hartuko da, orobat, foru lege honen 246. (ter). artikuluko 2. idatz-zatian jasotako aurreikuspena.

3. Lehiaketen ebazpenak eta lanpostuen esleipenen proposamenak Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuko titularrari igorriko zaizkio, eta horrek bidezko diren izendapenak egingen ditu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko direnak.

252. artikulua. Esleipenak eta jabetza hartzeak.

1. Merezimenduen lehiaketen ondorioz lanposturen bat esleitua gertatzen direnek hilabeteko epean hartu beharko dute izendapenaren xedeko lanpostuaren jabetza, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta. Horrekin batera, aurreko lanpostua utzi beharko dute, kasua bada.

Dena dela, administrazio eraginkortasuna helburu, deialdia egin duen organoak lanpostuaren jabetza hartzeko egun jakin bat finkatzen ahalko du. Horrelakoetan, aurreko paragrafoan ezarritako epea gainditzen ahalko da.

2. Lanpostuaren jabetza hartzearekin batera, lanpostuak atxikita dituen funtzionario-eskubide eta -betebehar guztiak bereganatuko dira eta funtzionarioa kasuko toki entitatearen menpe geldituko da.

3. Justifikatutako arrazoirik izan gabe lanpostuaren jabetza hartzen ez bada, gaikuntza galduko da. Hori dela kausa bete gabe gelditzen diren lanpostuak hurrengo deialdian eskainiko dira.

4. Hurrengo deialdietan eskainiko dira, orobat, gaikuntza prozesuetan esleitu arren, arrazoi honengatik hutsik gelditzen diren lanpostuak: titularrak borondatezko eszedentzia hartzea lanpostuaren jabetza hartzeko unean beste administrazio publiko batean lanean ari delako.

Laugarren atala  
Eskubide eta betebeharrak

253. artikulua. Ordainsari osagarriak.

Foru gaikuntza duten funtzionarioen ordainsari osagarriak kasuan kasuko toki entitateak finkatuko ditu, indarreko legerian ezarritakoarekin bat, ondolik aipatzen diren berriazko baldintzen arabera:

1. Nafarroako toki entitateetan funtzionario araubidean bete daitezkeen idazkari eta kontuhartzaile lanpostu guztiak bateraezintasun araubidean beteko dira, salbu eta dedikazio eskusiboa-ren modalitateko zerbitzu-ematearen araubidea esleitzen bazaie.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako araubideetik edozein esleituz gero, beharrezkoa bada, dagokion plantilla organikoa berrikusi beharko da, araubide berria eta horren ondorioz lanpostu bakoitzari egokitzen zaion ordainsari-osagarria bertan jasotzeko.

3. Foru lege honek indarra hartzen duenerako bateraezintasun araubidea esleitua ez duten lanpostuetan hori ezartzen bada, ezin izanen da hantitu lanpostu bakoitzari esleitutako ordainsari-osagarrien guztirako zenbatekoa, salbu eta beharrezkoa baldin bada dagokion mailaren hasierako soldataren ehuneko 35era iristeko.

4. Dagokion mailaren hasierako soldataren ehuneko 35eko edo gehiagoko ordainsari-osagarriak esleituak dituzten lanpostuek bateraezintasun araubidea atxikita dutela ulertuko da.

5. Aipatutakoez gain, lanpostuei beste osagarri batzuk esleitzen ahalko zaizkie, lanpostu bakoitzaren ezaugarrien arabera, betiere Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren araudian ezarritakoarekin bat baldin badatoz.

254. artikulua. Diziplina araubidea.

Foru Komunitatearen gaikuntza duten toki funtzionarioei aplikatzekoa zaien diziplina araubidea Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioei aplikatu beharreko indarreko araudian ezarritako dagoena izanen da, berezitasun hauek kontuan harturik:

1. Diziplina espedienteak hasteko eskumena duten organoak:

a) Arau-hauste arinen kasuan, diziplina espedienteak hasteko ahalmena Korporazioko alkate-udalburuari dagokio eta, batasun bateko entitateen kasuan, arau-haustea egin den udalerriko alkate-udalburuari.

b) Arau-hauste larrien edo oso larrien kasuan, diziplina espedienteak irekitzeko ahalmena Korporazioko alkate-udalburuari dagokio edo, bestela, Toki Administrazio zuzendari nagusiari, alkate-udalburuak hori proposatu eta toki entitateko Osoko Bilkurak baimentzen badu.

2. Zehapenak jartzeko eskumena duten organoak:

a) Arau-hauste arinengatikoz zehapenak jartzea Korporazioko alkate-udalburuari dagokio edo, kasu bada, funtzionarioa organikoki atxikita duen batasuneko buruari.

b) Arau-hauste larriengatikoz edo oso larriengatikoz zehapenak jartzeko eskumena diziplina espedienteasi hasi duenak izanen du, salbu eta zehapenak ondorio gisa zerbitzutik kentzea baldin badakar, kasu horretan eskumena Nafarroako Gobernuarena izanen baita betiere.

255. artikulua. Administrazio egoerak.

Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza duten funtzionarioen administrazio egoerak Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan araututa daudenak dira, baina artikuluhonetan jasotzen diren berezitasunak izanen dituzte:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza duten funtzionarioen administrazio egoeraren deklarazioa egitea haiek menpean dituen toki entitateko edo batasuneko buruari dagokio.

2. Jarduneko egoeran izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren arabera administrazio egoera hori sortzen duten inguruabarretatik edozeinetan dauden toki funtzionarioak, Nafarroako Foru Komunitateak emandako gaikuntza dutenak, baita ondoko egoeretako batean daudenak ere:

a) Beharrezkoak diren lanpostu berdin-berdinak dituzten toki administrazio batzuen arteko administrazio berrantolaketa bat dela kausa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren hamabigarren xedapen gehigarriari xedatu bezala transferitzen ez direnak.

b) Elkarte-izaerako toki entitate baten menpe dauden lanpostuak izanik, entitatea formalki desegin eta kide ziren udal bakar bati atxikita gelditzen ez direnak.

Kasu bietan, jarduneko funtzionario horiek behartuak egonen dira lanpostuak betetzeko deitzen den hurrengo lehiaketan parte hartzera eta bertan esleitu daitezkeen lanpostu guztiak eskatzera. Parte hartzen ez badute, nahitaezko eszedentziako egoerara pasako dira.

256. artikulua. Oporrak, lizentziak eta baimeak.

Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza duten toki funtzionarioen oporrak, lizentziak eta baimenak ematea haiek menpean dituzten toki entitateei dagokie, aplikatzekoa den indarreko araudiarekin bat, eta lekualdatze kasuetan, entitate bakoitzean egindako denboraren arabera.

## III. KAPITULUA

## Diru-zaintzako eta poliziako langileak

257. artikulua. Diruzain lanpostua.

1. Diruzain lanpostuak, funtzionario estatusari lotutako langileei dagokienez, foru lege honen 240. (ter) artikuluan aipatutako eginkizunen administrazio erantzukizuna dakar berarekin.

2. Diruzain lanpostua beharrezkoa izanen da 25.000 biztanletik gorako udalerrietan eta horretarako propio sortzen diren udal-batasunetan.

3. Diruzain lanpostu bat hartzeko beharrezkoa izanen da A taldeko kontu-hartzailearen gaikuntza lortzeko foru lege honetan eskatzen diren titulueta-tik bat edukitzea eta, lanpostua hartzearekin batera, funtzionario araubidea bereganatuko da, kasuan kasuko toki entitatearen zerbitzura aritzeko.

4. Kontu-hartzaile lanpostua plantilla organikoan sartzearabaki duten udaletan edo elkarte-izakerako toki entitateetan, kontu-hartzaileari egokitu-ko zaizkio entitatearen diruzaintzako eginkizunak.

5. Diruzain lanpostua ez duten toki entitateetan, lehenago xedatutakoaren arabera diruzaintza lanak kontu-hartzaileari esleitu ez bazaizkio, lan horiek entitateak izendatutako C edo D mailako langile funtzionario batek eginen ditu (lan gehigarri edo osagarriak agintzen ahalko zaizkio), edo entitateko kideei esleitzen ahalko zaizkie.

6. Diruzain lanpostua duenak diruzaintza lanak egiteak berarekin ekarriko du behar adinako bermea eratzea bere kargura. Bermearen zenbatekoa eta nolakoa dagokion toki entitateko Osoko Bilkurak finkatuko ditu.

258. artikulua. Udaltzaingoak.

Agintea erabiltzea dakarten lanak udaltzaingoko langileek eginen dituzte eta, hala badagokio, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean eta aplikatu daitezkeen gainetarako arauetan adierazitako langileek.»

**Lehen xedapen gehigarria.** Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak partekatzeke udal-batasunak ezartzea.

2012ko irailaren 30a baino lehenago, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, non arautuko baitira Toki Mapa eta Nafarroako toki entitateen antolamendua; proiektu horrek errespetatu beharreko printzipioak izanen dira subsidiaritatearena, eskumenen argitasunarena, finantza-nahikotasunarena eta lurralde-elkartasunarena. Legearen nahitaezko ezarpena gauzatu aurretik, toki entitateek epe

labur bat izanen dute legeko aurreikuspenak bere borondatez onartzeko.

Lege proiektu horrek, betiere, Nafarroako toki entitateen mapa bat edukiko du, zeinaren egitura-mailetan jasota egonen baitira kontzejuak, udalak, zerbitzu administratiboetarako batasunak eta udalez gaindiko bestelako entitateak.

**Bigarren xedapen gehigarria.**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen hamaseigarren xedapen gehigarriaren 2. puntuko a) eta b) idatz-zatiak honela idatzita geldituko dira:

“a) Iruñeko Udalak, plantilla organikoa onesten duenean, Osoko Bilkurako idazkari lanpostu hutsa betetzeko zer sistema erabiliko den zehaztuko du. Honako bide hauek izanen ditu aukeran:

– Lanpostua lege honen 245. eta ondoko artikuluetan araututako betetze sisteman sartzeara. Horretarako, Iruñeko Udalak Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentura jo beharko du, foru lege honen 248. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

– Lanpostu hori Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregulamenduan ezarritakoari jarraikiz betetzea. Proba horietan parte hartzen ahalko dute, bakar-bakarrik, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioek, daukaten lanpostuan sartzeko 246. (bis) artikuluko 1. idatz-zatian adierazitako tituluren bat eskatu baldin bazaie.

Prozedura horren bitartez lanpostuan sartzen den pertsonak Nafarroako toki entitateetan idazkari gisa aritzeko gaikuntza lortuko du zuzenean, horrelakorik ez badu.

– Foru gaikuntza duten funtzionarioen artean betetzea, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregulamenduari II. tituluko III. kapituluaren ezarritakoarekin bat.

Prozedura horren bidez lanpostuan sartzen dena zerbitzu berezien egoeran geldituko da jatorriz duen lanpostuan.

d) Iruñeko Udalak, plantilla organikoa onesten duenean, Udaleko kontu-hartzaile orokorraren lanpostu hutsa betetzeko zer sistema erabiliko den zehaztuko du. Honako bide hauek izanen ditu aukeran:

– Lanpostua lege honen 245. eta ondoko artikuluetan araututako betetze sisteman sartzeara. Horretarako, Iruñeko Udalak Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentura jo

beharko du, foru lege honen 248. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

– Lanpostu hori Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregulamenduan ezarritakoari jarraikiz betetzea. Proba horietan parte hartzen ahalko dute, bakar-bakarrik, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioek, daukaten lanpostuan sartzeko 246. (bis). artikuluko 2. idatz-zatian adierazitako tituluren bat eskatu baldin bazaie.

Prozedura horren bitartez lanpostuan sartzen den pertsonak Nafarroako toki entitateetan kontuhartzaile gisa aritzeko gaituntza lortuko du zuzenean, horrelakorik ez badu.

– Foru gaituntza duten funtzionarioen artean betetzea, Nafarroako Administrazio Publikoetako Lanpostuetan Sartzeko Erregulamenduaren II. tituluko III. kapituluaren ezarritakoarekin bat.

Prozedura horren bidez lanpostuan sartzen dena zerbitzu berezien egoeran geldituko da jatorriz duen lanpostuan.”

#### **Hirugarren xedapen gehigarria.**

“Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 46. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiek testu berria izanen dute. Hona:

2. Batasun horiek foru legeaz sortu beharko dira, salbu eta zerbitzu administratiboetarako batasunen kasuan, zeinak sortzen ahalko baitira foru dekretuz eta bat etorritik Toki Mapa eta Nafarroako toki entitateen antolamendua arautuko dituen foru legeak ezarritakoarekin.

Batasunak sortzean, zehaztu egin beharko dira izena, buru egiten duen udala, zer osaera eta funtzionamendu izanen duten bere gobernu-organoei, zeinak bateratutako udalen ordezkari izanen baitira, zer eskumen eta baliabide ekonomiko esleituko zaizkien, eta zer ahalmen izanen zaizkien aplikatzekoak.

Aurreko lerroek aipatzen dituen udal-batasunetan buru egiten duen udala zehazterakoan, funtzionaltasun irizpideei begiratuko zaie, hala nola zeinek duen biztanle kopururik handiena edo zein den batasuneko udalerrien arteko erdigunetik hurbilen dagoena.

3. Nafarroako udalek zerbitzu administratiboetarako batasunak eratzen ahalko dituzte soilik Toki Mapa eta Nafarroako toki entitateen antolamendua arautuko dituen foru legeak ezarritakoarekin bat; batasun horien antolamendua eta funtzionamendua beren estatutuetan ezarritakoari lotuko zaiz-

kio, eta subsidiarioki batasunen araubide orokorra aplikatuko zaie.

Baldin eta administrazio zerbitzuetarako batasun bat, 3.1.d) artikuluan aipatzen direnetakoa, eratu gogo duten udalak partaide badira edo sartuak badaude legeaz edo borondatez sortutako batasun batean, gutxienez ere beharrezkoak diren tokiko funtzio publikoko lanpostuei eutsi ahal izateko, batasun haren esparruak bat etorri beharko du, gutxienez, haren baitan sartutako udalarekin, non eta Nafarroako Gobernuak beste zerbaitearako baimena ematen ez duen, Toki Mapa eta Nafarroako toki entitateen antolamendua arautuko dituen foru legeak ezarritakoarekin bat.

Nolanahi dela ere, administrazio zerbitzuetarako batasun bat eratzen bada xede horretarako sortu edo eraturiko entitateetako kide diren udalen artean, entitate horiek desegin egiten dira eta, kasua bada, batasun hartan sartuko dira une horretan kargu horiek betetzen ari diren funtzionarioak.

Batasun horien toki entitate izaerak bidea ematen du beren gain har dezaten, beren estatutuetan ezarritako moduan betiere, borondatez erabakitzen diren udal eskudantzien erabilera kompetentziala.”

#### **Lehen xedapen iragankorra.**

Foru lege hau indarrean sartzen denean beren plantilla organikoetan idazkari eta/edo kontuhartzaile lanpostuak dituzten toki entitateek eutsi egiten diete postu horiei, harik eta, Toki Mapa eta Nafarroako toki entitateen antolamendua arautuko dituen foru legeak ezarritakoa aplikatzearen ondorioz, beren plantilla organikoak egokitzen dituzten arte.

#### **Bigarren xedapen iragankorra.**

Foru lege honen 253. artikuluan xedatutakoa gorabehera, hark indarra hartzen duenean idazkari edo kontuhartzaile lanpostuetan ari direnek zerbitzuak emateko lehenago zuten araubidean segitzeko aukera izanen dute, lanpostu horretan segitzen duten bitartean.

#### **Hirugarren xedapen iragankorra.**

1. Foru lege honetako lehen xedapen gehigarriak aipatzen duen foru legea indarrean sartu bitartean, deialdi bakar bat egiten da idazkari eta kontuhartzaile lanpostuak betetzeko Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 243.2 eta 244.2 artikuluek aipatzen dituzten udaletan, foru lege honek ezarritako testuari eta prozedurari jarraikiz.

Gaikuntza lortu eta prozesu horretan eskainitako lanpostuetara sartzeko probak ezin izanen dira hasi 2012ko bigarren sei hilekoa baino lehenago, eta deialdia, betiere, probak hasi baino gutxienez sei hilabete lehenago onetsi beharko da.

2. Bestalde, ebazpen irmorik gabe dagoen bitartean edozein erreklamazio administratibo edo judizial oinarri duena Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea, lehenengo xedapen gehigarriko lehenengo idatz-zatiko hirugarren lerrokada oinarri duena hain zuzen, ez dira inongo deialditan eskainiko aipatutako xedapen gehigarriko hirugarren idatz-zatiko lehenengo lerrokadan ezarritakoaren arabera deitutako lehiaketan sartu ziren idazkari lanpostuak, zeinak behin betikoz betetzeko asmoz sartu baitziren deialdi hartan.

#### **Laugarren xedapen iragankorra.**

Foru lege hau indarrean sartu ondoren idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetan sartzeko eta gaikuntza lortzeko onesten diren lehenbiziko hiru deialdiak oposizio-lehiaketa bidez gauzatu dira.

Deialdi horietan, eta ezertan galarazi gabe euskararen balorazio gehigarriko ezarritakoa, oposizio eta lehiaketa faseek izanen duten balorazio proportzionala 70ekoa eta 30ekoa izanen da hurrenez hurren, eta Nafarroako toki entitateetako

idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetan 20 urtez emaniko zerbitzuekin, bai eta urte horiei beste merezimendu batzuk gehituta, lehiaketa faseko gehieneko puntuazioa lortzeko modua izan beharko da.

#### **Xedapen indargabetzailea.**

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak. Berariaz indargabetzen da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen sei garren xedapen gehigarria.

#### **Azken xedapenetan lehena.**

Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak proposaturik, foru lege honen xedapenak garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko arauak ematen ahalko ditu, Nafarroako toki entitateetan beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzearen gainean.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



## **Nafarroako Foru Komunitateko mugikortasun iraunkorrari eta garraioaren antolamenduari buruzko Foru Lege integralaren proiektua.**

### *PROIEKTUA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 10ean egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Foru Komunitateko mugikortasun iraunkorrari eta garraioaren antolamenduari buruzko Foru Lege integralaren proiektua erretiratu izanari dagokio-

nez. Proiektu hori 2011ko otsailaren 4ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetzat hausten den kasuetarako arautzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetzat hausten den kasuetarako arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 152. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako Foru Legea gehiago osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetzat hausten den kasuetarako arautzen duen Foru Legea**

#### ZIOEN AZALPENEA

Familiaren eta haurren babesa, zeina Konstituzioaren 39. artikuluan aldarrikatzen baita, politika sozialaren eta ekonomikoaren printzipio gidarietako bat da, eta botere publikoak behartzen ditu beharrezko neurriak hartzera babes hori benetan gauza dadin.

Bizikidetzat hausteak ez ditu gurasoak salbuesten bere seme-alabekiko betebeharretatik, eta, horrenbestez, zenbait neurri hartu beharra dago adingabeen eta dituzten eskubideen babeserako, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatuta.

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak –Nazio Batuen 1989ko azaroaren 20ko Biltzar Nagusiak aldarrikatu zuen, eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsi– estatuak behartzen ditu errespetatzea dezaten hurrek bi gurasoekin

modu erregularrean harreman pertsonala eta kontaktu zuzena izateko duten eskubidea, non eta hori ez den haurren interes gorenen aurkakoa.

Bizikidetzat hausten denean, seme-alaba komunen zaintza eta jagoletza da konpondu beharreko arazo kontuzkoenetako bat. Nahiz eta Kode Zibileko gaur egungo araubideak jasotzen duen jagoletza partekatua, ez baldin badago gurasoen arteko akordiorik, praktikan salbuespena da, eta Ministerio Fiskalaren aldeko txostena du baldintza.

Foru lege honekin nahi dena da, egungo gizarte-errealitatearekin bat, horrelako kasuak zuzendu, eta bidea eman joka dadin, gurasoak ados ez eta erabaki behar denean seme-alaba adingabeen gaineko jagoletzari buruz, seme-alaben interes gorena eta gurasoen berdintasuna aintzat hartuta.

Aurrekoa gorabehera, Gobernuari agindua ematen zaio foru lege proiektu bat aurkez dezan, urtebeteko epean, Nafarroako Foru Berria familia zuzenbideari dagokionez aldatzeko, hori baitu horrelako aldaketa batek esparru naturala, gainerrako instituzioekin integratuta, sistema koherente bat osatu behar baitu.

Nafarroak eskumenak ditu zuzenbide zibilaren arloan eta arlo prozesalean, berezkoa duen zuzenbide substantiboaren berezitasunen ondorioz, eta eskumen horiek oinarri hartuta onesten da foru lege hau.

### **I. KAPITULUA** **Arau orokorrak**

#### **1. artikulua.** Xedea eta helburuak.

1. Foru lege honek xede du arautzea seme-alaba adingabekoen zaintza eta jagoletza, beren gurasoen bizikidetzat hausten den kasuetarako.

2. Foru legearen helburua da behar diren neurriak hartzea seme-alaben jagoletzari buruz har-

tzen den erabakiak kontuan har dezan seme-alaben interes gorena eta gurasoen berdintasuna, eta gurasoen akordia erraztea familia-bitartekotzaren bidez.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren ondorioetarako, erraztu egingen da gurasoak ados jartzea foru lege honetan jasotzen den familia-bitartekotzaren bidez.

## II. KAPITULUA

### Familia-bitartekotza

#### 2. artikulua. Familia-bitartekotza.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, gurasoek erabaki dezakete, beren borondatez, eta akordio bat lortze aldera, dituzten desadostasunak familia-bitartekotzaren bidez konpontzen saiatzea. Era berean, epaileak bitartekotza bidezko konponbide bat proposatzen ahalko du demanda judiziala aurkezten bada.

2. Familia-bitartekotzaren bidez lortutako akordioak dokumentu batean jaso beharko dira, epaileak, hala erabakiz gero, onets ditzan.

3. Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Nafarroako Gobernuak familia-bitartekotzako zerbitzu publiko eta inpartzial bat jarriko du aldean eskura.”

## III. KAPITULUA

### Familia-harremanei buruzko hitzarmenik ezean aplikatu beharreko neurriak

#### 3. artikulua. Seme-alaben zaintza eta jagoletza.

1. Bizikidetzat hausten bada, gurasoetako bakoitzak bere aldetik, nahiz biek batera, ados jarrita, epaileari eskatu ahalko diote seme-alaba adingabeen edo ezgaituen zaintza eta jagoletza biek hartzea beren gain, edo batek bestela.

2. Eskaera gurasoetako batek bakarrik egiten badu, epaileak erabakiko du jagoletza eta zaintza zein eratakoa izanen den, partekatua ala banakakoa; horretarako, Ministerio Fiskalari entzun beharko dio, eta, aldeaz aurretik, eskatu beharrekoak iruditzen zaizkion irizpenak ikusi eta entzunaldiak gauzatu ere bai, seme-alaben interesentzat hala komeni denean.

3. Epaileak erabakiko du zein den jagoletza-mota komenigarriena seme-alaba adingabeen intereserako, kontuan hartuz gurasoetako bakoitzak zer eskaera aurkeztu duen eta aintzat hartuz, foru lege honetan xedatutakoaz gainera, hurrengo faktoreak:

a) Seme-alaben adina.

b) Gurasoen arteko harremana, eta, batez ere, gurasoetako bakoitzak zer jarrera duen bere betebeharez arduratzeari dagokionez, bestearen eskubideak errespetatzeari dagokionez, eta, bereziki, elkarren artean lan egin eta seme-alabek guraso biekiko harremana eta beren familia zabalrikiko harremana izateari ziurtatzeari dagokionez.

c) Seme-alaben gizarte- eta familia-loturak.

d) Seme-alaben iritzia, baldin eta behar beste gertatzen bada, eta, betiere, hamabi urte baino gehiago badituzte, bereziki aintzat hartuta hamalau urtetik gorakoena.

e) Gurasoen gaitasuna eta borondatea seme-alaben egonkortasuna ziurtatzeko.

f) Gurasoen familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko aukera.

g) Gurasoen artean aldeaz aurretik egon litezkeen akordioak eta itunak, baldin eta horiek justifikatu badizkiote.

h) Bizikidetasunari buruzko araubideari begira garrantzi berezia duen beste edozein inguruabar.

4. Nolanahi ere, erabakiaren helburua izanen da bateratzea, ahal bada, jokoan diren interes guztiak, kontuan hartuz lehentasuna dutela seme-alaba adingabeen edo ezgaituen interesek, eta ziurtatuz gurasoek berdintasuna izanen dutela seme-alabekiko beren harremanetan horien onuragarri den orotan.

5. Epaileak jagoletza partekatua erabakitzen badu, gurasoetako bakoitzaren eta seme-alaben arteko bizikidetasunari buruzko araubide bat ezarriko da, familiaren egoerari egokitu, bi gurasoei ziurtatze aldera berdintasunez baliatu ahal izatea haien eskubideak eta betebeharrak.

6. Jagoletza banakakoa erabakitzen badu, epaileak beste gurasoarekiko komunikazio-, egonaldi- edo bisita-araubide bat ezarriko du, hark ziurtatuta izan dezan Nafarroako Zuzenbide Zibilarren Konpilazioko 63. legearen arabera esleituta dituen guraso-ahalaren berezko ahalmen eta betebeharren erabilera.

7. Non eta berariaz justifikatutako inguruabarrak gertatzen ez diren, ez da neba-arrebak banatzea dakarren konponbiderik hartuko.

8. Ez zaio zaintza eta jagoletza gurasoetako bati emanen, ez partekatua ez banakakoa, hurrengo bi baldintza hauek batera ematen badira:

a) Beste gurasoaren edo seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun

moralaren edo sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik abiatutako prozesu penal batean sartuta bada.

b) Kriminalitate-zantzu arrazoizkoak eta funtsatuak daudela dioen ebazpen judizial arrazoitua eman bada.

Ez zaio zaintza eta jagoletza emanen, ezta ere, baldin eta epaileak ikusten badu, alderdien alegazioei eta egindako frogei erreparatuta, etxeko edo genero indarkeriaren zantzu funtsatuak eta arrazoizkoak daudela.

Bi kasu horietan hartzen diren neurriak berraztertutako ahalko dira, baldin eta zigor jurisdikzioan horri buruzko ebazpen irmoa ematen bada.

Ezkontide edo bikotekide baten aurkako salaketa ez da nahikoa izanen, berez, modu automatikoan ondorioztatzeko bestearenganako edo seme-alabenganako indarkeria edo mehatxuak daudela, edo horiei kalteak eragiten zaizkiela, eta ez da nahikoa izanen seme-alaben zaintza eta jagoletza gurasoetako bati emateko.”

**Xedapen gehigarri bakarra.** Zenbait pertsonari buruz ari denean foru lege honen gaztelaniazko bertsioak genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan (“padres”, “hijos”, “abuelos”, eta abar) ulertu behar da adierazpideen

ekonomia hutsagatik jokatzeko delak horrela, eta modu generikoan egiten zaiela erreferentzia posizio horietan daudenei, emakumezkoak zein gizonetzkoak izan, erabateko berdintasun-baldintzetan ondorio juridikoen ikuspegitik.”

**Xedapen indargabetzailea.** Indargabetuta gelditzen da Bikote Iraunkorren Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeko 10. artikulua.

**Azken xedapenetan lehena.** Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, eta Foru Zuzenbide Zibileko Kontseilu Aholku-emaileak alde aurretik txostena eginda, Nafarroako Parlamentuan foru lege proiektu bat aurkeztuko du Nafarroako Foru Berria aldatzeko, familia zuzenbideari dagokionez.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat onetsiko du arautuko dituen familia-bitartekotzako zerbitzuen antolamendua, funtzionamendua, eskumenak eta eskudantziak, familia-gatazkak konpontzea eta foru lege hau aplikatzea helburu.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hiru hilabeteko epean hartuko du indarra.

## Foru Legea, Gobernu Onaren Kodea ezartzen duena.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Gobernu Onaren Kodea ezartzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Foru Legea, Gobernu Onaren Kodea ezartzen duena

#### ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioa eta Foruaren Hobe-kuntza indarrean sartu zirenetik, antolamendu juridikoa aberastu egin da, Gobernu kideen, administrazio publikoetako goi karguen, funtzionario

publikoen eta administrazio publikoetako gainerako langileen –foru erakundeen ordezkariak barne– jarduera-esparrua osatzen duten zenbait arauen bidez, horiek guztiek beren eginkizunak legeztatzen-blokearen arabera bete ditzaten; izan ere, horrela ziurtatzen dira gardentasuna, eraginkortasuna eta funtzio publikoak betetzeko guztizko dedikazioa, eta saihesten dira haien independentzia eta inpartzialtasuna arriskuan jar dezakeen edota betebeharrak publikoak betetzea kaltetu dezakeen jardura edo interes oro.

Hala ere, gaur egun, beharrezkoa da botere eta erakunde publikoek herritarrekiko konpromisoa hartzea, eta, horren bidez, ordezkari publiko guztiek, beren eginkizunak betetzean, legetan ezarritako betebeharrak betetzeaz gain, zenbait etiketa jardun-printzipioek gidatuta jardutea; izan ere, printzipio horiek, orain arte arauetan espresuki

islatu ez diren arren, haietatik ondoriozta daitezke, eta gobernu onaren kodea osatzen dute.

Horrenbestez, kontua da kode horretan jasotzea askotariko eskakizunekiko errespetua; horien artean egonen lirateke, legezko edo erregelamenduzko arauak betetzeaz gain, beste zenbait berme gehigarri, botere publikoen eta herritarren arteko itun bat osatzen dutenak, Espainiako demokrazia-ko eta, kasu honetan, Nafarroako Foru Komunitateko erakundeen funtzionamenduari dagokionez.

Kode horren prestaketak fidelki erantzuten die Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) eta beste nazioarteko erakunde batzuek emandako jarduera-ildoei, eta, hori dela eta, politika eraginkorra da gatazka horiek prebenitzeko eta kudeatzeko, tradizio eta jatorri demokratikoa duten beste herrialde batzuek abian jarritako antzeko esperientzien ildotik.

Horren haritik, eta Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez, xedea da herritarrei gobernu onaren kode bat eskaintzea, non zehaztu eta azalduko baitira Gobernu kideen eta goi karguen jardunak jarraitu beharreko erreferentziazko balioak, hala herritarren eskaerei erantzuteko, bizi diren erkidego politikoaren zati diren aldetik, eta norbanakoen helburuak errespetatu, babestu eta sustatzeko konpromiso sendoa eskaintzeko, elkartasuna, askatasun, justizia eta etika nagusi diren esparru batean, Gobernu kideen Bateriaezintasunei buruzko Foru Legeak ezartzen duen zentzu berean.

Erreferentziazko balioak ez dira ondorio juridikorik gabeko printzipio etiko sorta bat. Aldiz, ordenamendu juridikoan indarrean dauden arauetatik ondorioztatzen diren printzipioak dira, halako moduz non horietako bakoitza zehazki adierazita dago haren urraketak edo hala-moduzko betetzeak dakarren ondorio juridikoa aurreikusten duen arau batean. Printzipio horiek bete beharko dira, betiere, ordenamendu juridikoan aurreikusitako moduan, batez ere Konstituzioan eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko Foru Legean, zeina aplikatzen baitzaie Gobernu kideei, bai eta Foru Administrazioiko goi karguei eta erakundeetako ordezkariari ere, toki entitateetako ordezkariak barne.

### **1. artikulua.** Jokabiderako oinarritzko araua.

Nafarroako Gobernu kideek, Foru Komunitateko Administrazioiko goi-karguek eta Nafarroako toki entitateetako hautetsiek antolamendu juridikoaren arabera jokatu beharko dute eta legezkotasun-printzipioa errespetatuko dute, foru lege honetako jokabide-parametroen arabera, bai eta foru lege honetan ezartzen diren printzipio etikoak ere.

### **2. artikulua.** Printzipio etikoak.

1. Nafarroako Gobernu kideek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko goi karguek eta Nafarroako toki entitateetako hautetsiek giza eskubideak eta herritarren eskubideak sustatuko dituzte, eta saihestuko dute jaioleku, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialengatiko bereizkeria eragin dezakeen jarduketa oro.

2. Erabakiak hartzerakoan, xedea izanen da herritarren interes orokorrei erantzutea, eta, horretarako, interes komunera bideratutako gogoeta objektiboak hartuko dira oinarritzat, alde batera utzita printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jarrera pertsonalak, familiakoak, korporatiboak, bezerokeriazkoak edo beste edozein motatakoak.

3. Kargu publikoek zainduko dute emakumezkoen eta gizonezkoen arteko errespetua sustatzen dela, eta hori zailtzen duten oztopoak kenduko dituzte.

4. Ez dute administrazio-izapideen edo -prozeduren arintzean edo ebazpenean eraginik izanen, horretarako bidezko arrazoirik ez badago, eta, inoiz ere ez, horrek pribilegioren bat baldin bada kargu horien titularrentzat, haien senitarteko edo gertukoren batentzat, edota kaltegarri gertatzen bada hirugarrenen interesentzat.

5. Eraginkortasunaren, ekonomiaren eta efizientziaren printzipioen arabera jardunen dute, eta beti zainduko dute interes orokorra betetzen dela eta antolamenduaren helburuak betetzen direla.

6. Beren jarduera publikoa gardena eta irekia izanen da herritarrentzat, legeetan ezarritako salbuespenak salbuespen.

7. Une oro beren gain hartuko dute haien erabakien eta jarduketan erantzukizuna, bai eta zuzentzen dituzten erakundeena ere, eta hori ez da oztopo izanen legez beste batzuk ere eska dakizkien.

8. Beren jarduketan erantzukizuna beren gain hartuko dute goragokoen aurrean, eta ez dute erantzukizun hori menpekoen gain utziko, horretarako arrazoi objektiborik ez bada.

9. Esleituta dituzten eginkizunak beteko dituzte fede onaren eta zerbitzu publikoaren alde egitearen printzipioen arabera, eta ez dute printzipio horien aurka jardunen. Halaber, saihestuko dute esleituta dituzten zerbitzu publikoak betetzean izan beharreko neutraltasuna zalantzan jartzen duen jardunbide oro.

10. Interes publikoko informazioa zabaltzeari buruzko legeetan ezarritakoa ezertan ere galarazi

gabe, isiltasuna, sekretua eta zuhurtzia gordeko dira kargua dela-eta ezagutzen diren datu eta txostenei dagokienez.

11. Honakoetan oinarritutako jokabide-arauak beteko dituzte: gainerako herritarrekiko berdintasuna, gardentasuna, erabakietan eta zerbitzu publikoan neutraltasunez aritzea eta prestakuntzan, berrikuntzan eta jardunean ahalegintzea.

### **3. artikulua.** Jokabideari buruzko printzipioak.

1. Goi karguak betetzeak dedikazio eskusiboa eskatzen du.

2. Alderdi politikoen zuzendaritzetako organo exekutiboetan karguak betetzeak ez du inolaz ere kaltetuko edo arriskuan jarriko arduradun publiko gisa dituzten betebeharrak betetzea.

3. Goi karguek, esleituta dituzten zerbitzuei dagokienez, ziurtatuko dute herritarrek modua izan dutela zerbitzu publiko horien funtzionamenduari buruz informazioa jasotzeko duten eskubidea erabiltzeko, berariazko arauak ezarritako mugekin.

4. Beren eginkizunak betetzerakoan, arreta handiz jokatu dute, halako moduz non hartutako betebeharrak enplegatu publikoen jardunbidearentzat eredu izateko moduan beteko diren. Eredugarritasun hori aplikatuko dute, era berean, herritar diren aldetik legeak eskatzen dizkieten betebeharrak betetzerakoan.

5. Baliabide publikoak zuhurtziaz administratuko dituzte, eta kargu publikoa betetzean beharrezkoa den duintasuna kaltetu dezakeen jarduera oro saihestuko dute.

6. Ez dute oparirik, mesederik edo abantailazko baldintzetako emandako zerbitzurik onartuko, ohiturazkoak edo kortesiazkoak direnez harago, ez eta bere eginkizunen betetzea baldintzatu dezakeen prestazio ekonomikorik ere, Zigor Kode ezarritakoa galarazi gabe.

Izaera instituzionala duten opari esanguratsuen kasuan, horiek foru erkidegoko ondarean

sartuko dira, foru legeetan aurreikusitakoaren arabera eta erregelamendu bidez ezarritakoari jarraituz.

7. Beren eginkizunak betetzerakoan, herritarren eskura egonen dira eta arreta osoa jarriko dute haien aurkezten dituzten idatzi, eskaera eta erreklamazio guztiei erantzuterakoan.

8. Foru Komunitateko Administrazioak kargua dela-eta haien eskura jartzen dituen ondasun eta zerbitzuen erabilera desegokirik ez dute eginen.

9. Kultur ingurunearen eta hizkuntza aniztasunaren babesa, bai eta ingurumenaren kalitatearen babesa eta hobetzea izanen dira foru lege honen mende dauden arduradun publikoek beren eginkizunetan izanen duten jokabidea.

10. Ziurtatuko dute dokumentuak jasota gertatzen direla, modu iraunkorrean, bere ondorengoei emate aldera.

**4. artikulua.** Gobernu onaren kodea betetzearen kontrola.

1. Urtero, Nafarroako Gobernuak Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariak edo kasuan-kasuan dagokionak eginiko txostena aztertuko du, zeinetan agertuko baitira foru lege honetan ezarritako etika- eta jardun-printzipioen balizko urraketak. Horren xedea izanen da Gobernuaren eta Gobernuko goi karguen bateraezintasunei buruzko beste foru legeetan ezarritakoaren arabera hasi dezaketen prozedurak eta jarduerak aztertzea.

2. Toki entitateen kasuan, foru lege honetan ezarritako printzipioak betetzen ote diren zaintzeko baldintzak ezarriko dira, beren eskumenen esparruan betiere.

**Xedapen indargabetzailea.** Foru lege honen aurka doazen lege- nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

**Azken xedapena.** Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den unean bertan.

## Foru Legea, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Foru Legea, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa

### ZIOEN AZALPENA

Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeko 68.3 artikuluan hartzailerek aurretiaz bete beharreko zenbait baldintza ezartzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak edo bere sozietate publikoen bidez obrak egin ahal izateko. Baldintza horietako bat artikuluko 3. idatz-zatik a) letran ezarritakoa da: dagokien finantzaketa zatia eta hala bide denean egiten diren likidazioak aurrez aportatzea. Finantzaketa zati hori, hasiera batean, obra horien kostuaren ehuneko 50ekoa da.

Onartu beharra dago bizi dugun zailtasun ekonomikoko une honek eragin berezia izan duela toki entitateen diru-sarreretan, nabarmen jaitsi baitira likidezia, finantzatzeko ahalmena eta, azken batean, gastua; horrenbestez, bereziki zail dute baldintza hori betetzea. Beraz, entitate horien ekarpena erraztea komeni da; hartara, finantzaketari kalte egin gabe, erraztu egiten da, entitate horien ekarpenak obrak egiteko prozesuaren erritmoari egokituta.

**Artikulu bakarra.** Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen aldaketa.

Testu hau izanen dute ondoren aipatzen diren Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen agindu hauek:

Bat. 51.2 artikulua.

“Instalazio horietarako laguntza publikoak eskuratzeko, instalaziook oinarritzko ureztatze-azaleraren adinakoak edo handiagoak izan beharko dute. Irizpide hori ez da aplikatuko ureztaketarako

ezarritako azalera oinarritzkoaren neurria lortzerik ez duten finketan, bai topografi edo isolamendu arazoengatik bai ageriko ezintasun teknikoengatik”

Bi. 52.4 artikulua.

“Ureztatze-unitate berean ura lurzatian aplikatzeko sistema bakarra erabiltzen ahalko da. Aukeraturako sistema prestatuko da laboreetarako hobekien den moduan, arrazoi agronomikoak eta kostua kontuan harturik. Lurzatian ura aplikatzeko sistemek, bakoitzak bere aldetik, oinarritzko ureztatze-unitatearen tamaina baino handiagoa badute, aurreko irizpide orokorretik salbuetsita egonen dira. Foru lege honetan aurreikusitako dirulaguntzak aplikatuko zaizkie tamaina hori gainditzen duten ureztatze-sistemari edo ureztatze-sistemei”

Hiru. 68.3.a) artikulua.

“3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak edo bere sozietate publikoen bidez obrak egin ahal izateko, hainbat baldintza aurretiazko ezarriko dira, hartzailerek bete beharrekoak eta erregelamendu bidez garatzekoak, honako oinarri hauetan oin hartuta:

a) Dagokien finantzaketa zatia eta, kasu bada, egiten diren likidazioak aldeztu egitea.

Hala ere, foru lege honetako 71.2 artikuluko bigarren ataleko d) letran ageri diren barne banaketako obren kasuan, herrilurretan nahiz gisako lursailetan egiten direnetan, onuradunek obra horien esleipen-zenbatekoaren ehuneko 50 jarri beharko dute obrak hasi aurretik, foru lege honetako 73.4 artikuluekin bat, edota, bestela, zenbateko bereko abal solidario bat, Espainian eragiketarako egiteko baimena duen banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba edo elkarrekiko bermerako sozietate batek lehenbiziko errekerimendua egindakoan exekutatzeko modukoa. Abala aurkeztea hautatuz gero, onuradunek dagokien zenbatekoa ordaindu beharko dute obra-ziurtagiri bakoitzean, ziurtatutako epea amaitu eta hirurogei egun pasa aurretik”

Lau. 71.2 artikulua. f) letra berria gehituko zaio.

“f) Herrilurretan egindako lurralde-hobekuntzak: Nekazaritza-azpiegituren jarduketarekin batera, herrilurrak berrantolatze eta hobetzeko prozesuaren barruan egiten diren inbertsio oro, herrilurretako laborantza-loteak hobetzea helburu.

Kontzeptu horren barruan sartuko dira laborantza-lote berrietan mugarriak jartzeko lanak, drainatze-obrak eta laborantza-finken lurralde-hobekuntzatzat jotzen den beste edozein inbertsio. Edonola ere, obra horiek kontratatuta egon beharko dute ureztaketa abiatzeko deklarazioa egin eta hiru urteko epea amaitu aurretik.”

Bost. 73.4 artikulua.

“Foru lege honetako 71.2 artikuluko bigarren ataleko d) letran aipatzen diren obrak finantzatzeko, herrilurretako barne banaketari buruzkoak, baldintza ezinbestekoa izanen da barne banaketa hori presiopeko sareen bidez egitea, eta hartara, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gehienez ehuneko 75 finantzatuko du, eta kasuko toki entitateak edo eite berekoak gainerakoa, gainerako hori kalkulaturik egoeraren arabera finkatzen ahal diren erreferentziako kostuen gainean. Horrez gain, toki entitateak hamabost urtez eutsi beharko dio bere hartan loteen tamainari; ez da zilegi izanen tamaina hori oinarrizko ureztatze-azalera baino txikiagoa izatea, eta adjudikaziorako baldintzak foru lege honetako 42.5 artikuluan esaten denaren arabera izanen dira. Ehuneko 75eko gehieneko dirulaguntza hartzeko baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira.

Ehuneko 50eko oinarrizko dirulaguntza Administrazioak jarriko du obren exekuzioa gauzatzen den bitartean. Ehuneko 25eko dirulaguntza osagarria lortzeko baldintzak erregelamenduz garatuko dira; oinarria izanen da saritzea herrilurren adjudikazio-hartzaile direnek Nafarroako Ustiategiaren Erregistroaren arabera dituzten ezaugarriak, eta saritzea, halaber, zer prestakuntza duten ureztatzearekin zerikusia duten gaietan eta zer kontrol beren ur-kontsumoen gainean. Behin egiaztapena eginda, erregelamenduz ezarritako baldintzei jarraituz, ehuneko 25 hori ordainduko da.”

Sei. 73. artikulua. 6. idatz-zatia gehituko zaio.

“6. Foru lege honetako 71.2 artikuluko bigarren ataleko f) letran aipatzen diren obrak toki entitateek sustatu eta eginen dituzte, eta Nafarroako Gobernuak, gehienez ere, ehuneko 40ko dirulaguntza emanen die. Gehieneko dirulaguntza hori eskuratzeko baldintzak erregelamendu bidez garatuko dira.”

**Xedapen indargabetzailea.** Foru lege honen aurka doazen lege- nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

**Azken xedapena.** Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den unean bertan.



## **Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 9. bis artikulua sortzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 9. bis artikulua sortzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 9. bis artikulua sortzen duen Foru Legea**

#### ZIOEN AZALPENA

2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2010 Foru Legeko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren bidez indargabe gelditu zen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 9. bis artikulua, eta araubide berria ezarri zen arrisku berezia dakarten lanpostuetan aritzen diren langileentzat. Xedapen horretarako arrazoia da "osasun-langileen lanpostuetan gertatzen diren arriskuen hasierako definiziorik eza" eta "arrisku horiek eta haiei ordaintzera bideratutako sistema bat uztartzeko zailtasun handia".

Bi argudio horiek ez dute oinarri nahikorik legean sartutako aldaketa justifikatzeko, nahiko izanen litzatekeelako azterlan metodologiko bat egitea, osasun-langileek betetzen dituzten lanpostuetako arriskuak definituko dituen.

Ikuspuntu juridikotik, onetsitako proposamen horrek urratu egiten ditu osagarri horien lege-oinarrien azpian dauden printzipioak, definizioz honako hauek baitira: "osagarriak dira oinarrizko soldatari gehitzen zaizkion lansariak, eta lanpostuaren ezaugarrien arabera ezartzen dira". Hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren bidez emandako araubide berriak printzipio hori hausten du, horren arabera arloak hartzen baitira kontuan osagarriak esleitzerakoan, eta arloen arabera diskriminatzen dira lanpostuak, eta horrek ez du batere lege-eus-

karririk. Halaber, arloei buruz egiten duen garapen zehatzean ere gertatzen da diskriminazioa; izan ere, horietan ez dira ageri, besteak beste "oinarrizko laguntzako ekipoak, emakumeari laguntzeko zentroak, ospitalez kanpoko kontsultak, eta abar."

Lan-arlo bakoitzaren tipologiaren berezitasuna berezko arriskuen arabera jasotzearen aitzakian, arrisku bereziko osagarriaren araubide osoa berri-tu da berez, osagarri horren edukia nabarmen aldatuta eta epai bidez aitortutako eskubideak kal-tetuta.

Lege-prozeduraren ikuspuntutik, bete beharreko izapideak ere ez dira bete; izan ere, negoziazio kolektiboa da lansari hori, horren zenbatekoa, bidezkotasuna eta abar hitzartzeko tresna. Horixe da foru lege honen xedea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aldatzen duen foru lege honen egitura honakoa da: artikulua bakar bat, zeinak aipatutako foru legeari 9. bis artikulua gehitzen baitio arrisku bereziko osagarria arautze aldera, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

#### **Artikulu bakarra.** 9. bis artikulua gehitzea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean 9. bis artikulua berri bat eransten da. Testu hau izanen du:

"9. bis artikulua. 1. Arrisku bereziko osagarria erregelamenduz esleitu-ko zaie berekin toxikazio, neke edo arrisku bereziko egoerak dakartzaten lanpostuei.

Osagarri honen zenbatekoa lanpostu bakoitzera-ko zehaztuko da, arrisku bereziko ezaugarri berariazkoak aintzat hartuta, eta ez da inolaz ere izanen kasuan kasuko mailako hasierako soldata-ren ehuneko 10ekoa baino handiagoa.

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu-ak, Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuaren bidez, toxikazio, neke edo arrisku bereziko egoe-rek dakartzaten arriskuei buruzko azterlan zehatz bat eta ebaluazio bat eginen ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lanpostu bako-i-

tzerako. Azterlan hori gizarte eragileekin negoziatuko du.”

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen

duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko zazpigarren xedapen gehigarria indargabetzen da.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2011ko urtarrilaren 1etik aitzina izanen du eragina.

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea behin-behinekoz aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2011ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea behin-behinekoz aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2011ko otsailaren 3ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Transferentzien Batzordea biltzeko deialdia presaz egin dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Transferentzien Batzordea biltzeko deialdia presaz egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Transferentzien Batzordea biltzeko deialdia presaz egin dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen egin dezan Transferentzien Batzordea biltzeko deialdia, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan transferentzien arloan sustatu eta garatu beharreko politika orokorra aztertze aldera, zehazki ikerkuntzaren, trafikoaren eta espetxe-erakundearen arloetan.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZari buruzko Legean Foru Komunitateko langileen atxikipenetan onetsitako deflatazio progresiboa harmoniza dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZari buruzko Legean Foru Komunitateko langileen atxikipenetan onetsitako deflatazio progresiboa harmoniza dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZari buruzko Legean Foru Komunitateko langileen atxikipenetan onetsitako deflatazio progresiboa harmoniza dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du premiaz alda dezan PFEZari buruzko Erregelamenduko 71. artikuluko atxikipentaula, PFEZari buruzko Legeko 59. artikuluan onetsitako deflatazio progresiboa harmonizatze aldera eta Foru Komunitateko langileek onetsi den deflatazioaren onura izan ahal dezaten 2011ko nominean egiten zaizkien atxikipenetan eta, horrenbestez, ez dezaten erosahalmenik gal.

